



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko azaroaren 8ko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, azaroaren zortzian, zazpitan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : HEGUY Antton

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko azaroaren 3a

Afitzatze eguna : 2022ko azaroaren 3a

5. ERABAKIA: DENBORA EZ OSOKO GAITASUN ANITZEKO HARRERA LANGILE ETA KONTULARI ENPLEGU IRAUNKOR BATEN SORTZEA

(4.1.1 nomenklatura: lanpostu sortzea)

Auzapezak Herri Biltzarrari denbora ez osoko gaitasun anitzeko harrera langile eta kontulari enplegu iraunkor baten sortzea proposatu dio.

Enplegu hori C kategoria hierarkikoan kokatzen da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen da:

Lanbidea	Dagokion gradua	Kategoria hierarkikoa	Aurrekontuko zenbatekoa	Asteko batezbesteko lan denbora	Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa
Gaitasun anitzeko harrera langile eta kontulari	Administrazio laguntzaile 2. klaseko administrazio laguntzaile nagusia 1. klaseko administrazio laguntzaile nagusia	C	1	20 oren astean	Frantziako funtzio publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 3 artikulua

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikulua finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzte,
- baimen berezi gisa, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 3º artikulua arabera, kontratupeko langilea izan daiteke. Honela 1000 biztanletik beherako herrietan kontratupeko langileak kontrata daitezke enplegu iraunkorretan, baldin eta ezin izan bada funtzionarioik kontratatu,

Lan kontratuak, gehienez behin errepika daitezkeen hiru urteko iraupenekoak izan behar dute, hots gehienez sei urte segidan. Sei urte horien buruan kontratua luzatzen bada, orduan erabaki arin batez mugagabea bilakatuko da

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 387 arteko indize gordina izanen luke.

Hala balitz, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, administrazio laguntzaile postuan diren funtzionarioen baldintzetan.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak,

ERABAKI DU - 2023ko urtarrilaren 1etik, denbora ez osoko gaitasun anitzeko harrera langile eta kontulari enplegu iraunkor baten sortzea, astean 20 oreneko batezbesteko ordutegiarekin,

- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko da,

- kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 387 arteko indize gordina izanen luke.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko, kontratatze prozedura bukatzean kontratupeko langile bat kontratatzea hautatzen badu.

ONARTU DITU, Auzapezaren proposamen guztiak.

- **ZEHAZTU DU**, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainera egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko azaroaren 8an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/12/05ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/12/05ean.